


AUZOZ AUZO



San Luis 90 urte betetzeko prest

San Luis ikastetxeak 90 urte beteko ditu irailean. Belaunaldi gazteek Mendiola bidean besterik ez dute ezagutu San Luis, baina ikastetxeak auzoan baino urte askoz gehiago eman zituen Herreran.

San Luis ikastetxeak 1913ko irailaren 17an zabaldu zituen ateak Herrerako "Zeruko-atea" etxean (egungo San Luis plazan). Groseko San Bernardo ikastetxeko fraideak izan ziren, lehen urte haietan, egunero Ategorrietan tranbia hartu eta Herrerara eskolak ematera zihoazenak. Anaia Jean Leonides izan zen San Luis ikastetxeko lehen zuzendaria, 1913 eta 1920 bitartean. 1928an, ordea, San Bernardo ikastetxea Baionara eraman zuten, eta ondorioz, bertako fraideek utzitako hutsunea betetzeko eta San Luis aurrera ateratzeko, komunita-

te erlijioso bat sortu zen Herreran.

Hasiera hartan, ikastetxearen eta Altzako Udalaren arteko ika-mikak'izan ziren. Adibidez, 1919-20 ikasturtean, udalbatza liskartsua egin zen Altzako udaletxean. Izan ere, Udala ez zegoen prest ikastetxeko zuzendaritzak eskatuta-



Urteurren ekitaldiak

San Luis 90. urteurren ospatuko ditu Martxoaren 17tik 28ra bitartean. Inixaurrenondoko Euskal Herriko Gastronomia Eltxeak ikastetxearen gurasoek zuzendutako su-

kalidantza ikastaroa egingo du. Martxoaren 29an, bestalde, meza egingo da San Frantzisko Xabier elizan eta ondoren bazkaria. Orotarikoa Ego-Luze sagardote-

ko dirulaguntza igoera onartzeko. Azkenean, ikaste batzuen gurasoek ikastetxea diruz lagundu zuten, eta egoera bere onera itzuli zen.

1977tik Mendiolan

Zailtasunak zailtasun, San Luisek poliki-poliki aurrera egin zuen. 60ko hamarkadan, hala ere, ikastetxearen egoitza zaharkitua geratzen ari zela antzeman zuten garai hartako zuzendaritzak eta beste egoitza batean pentsatzen hasi zen.

60ko hamakada bukaeran, Donostiako saihebidetaren obrak aurrera zihoazen, eta elizaren eta ikastetxearen lurzoruen desjabetza gero eta gertuago ikusten zuten San Luiseko arduradunek. Horregatik, Donostiako Udalak, egoerari konponbidea eman nahian, behin behineko egoitza egokitu zuen Mirakruz gaineko Echaide Borda etxean. Bost urte geroago, 1977an, ikastetxeak Mendiolan hartu zuten behin betiko egoitza.

San Luis 80ko hamarkada hasieran ekin zion B eredia eskaintzeari: lehenengoetakoa izan zen Gipuzkoan eredu elebidunaren alde egiten. Egun, ikastetxean, euskara hutsezko D eredia besterik ez dago Haur eta Lehen Hezkuntza, eta B eredia, DBHn.

euskararen donostia

patronatu



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Antzerkia

- "Mebea"
AEK, Tentazioa
Otsailaren 21 eta 22an,
20.00etan
Antzoki Zaharrean

Haur antzerkia

- "Ekdazu"
Kukubiltxo
Otsailaren 22an, 18.00etan
Egia Kultur Etxean
- "Kokoroko"
Ados
Otsailaren 22an, 17.00etan
Ernest Lluch Amarako Kultur Etxean

Musika

- Imanol
Otsailaren 21ean, 20.00etan
Kursaal Auditorioan

Ipuinaren ordua

- "Neguko ipuin beroak"
Otsailaren 21ean, 18.00etan
Lugaritz Kultur Etxean